


## / Nabarmenezkoak

- > Ihoberen dirulaguntzak garapen jasangarrirako (2. or.)
- > Kultura eta gizarte intereseko jardueretarako dirulaguntzak (3. or.)
- > 381.650 euro 14 proiektu aurrera eramateko txirotutako herrialdetan (4. or.)



\* Getxoko hoteletako okupazioak eta batez besteko egonaldiak gora egin dute uda honetan (5. or.)

“AixeGetxo! 2025” kultur sarien banaketa. Hilak 19, asteazkena, 19:00etan Muxikebarrin. Gonbidapenarekin.

Antzerkia. Hilak 21, ostirala, 20:00etan Muxikebarrin, “Loreen hizkuntza”, La Mapatxarekin. 10 euro.

A-  
GENDA

## Udalbatzak behin betiko onartu du Hiri Antolamenduko Plan Orokor berria

# Urrats sendoa Getxo orekatuagoa, iraunkorragoa eta pertsona guztientzako aukerena izan dadin

Getxoko Hiri Antolamendurako Plan Orokor berriaren dokumentua behin betiko onartu zen pasa den astelehenean egindako ezohiko osoko bilkura batean, Udal Gobernuaren (EAJ/PNV eta PSE-EE) eta PPren aldeko botoekin eta EH-Bildu eta Elkarrekin Podemos-EPren aurkako botoekin. Hartara, datozen hamarkadetan Getxoren hazkundera bideratuko duen esparru estrategikoa onartu da, ingurune naturala, kohesio soziala eta udalerrigisa duen nortasuna zaindiz. EH-Bilduk osoko zuzenketa aurkeztu zuen, eta atzera bota zen.

### Planaren ezaugarriak

Hainbat alditan adierazi den bezala, planak bere lau ardatz estrategikoei eusten die: 4.471 etxebizitza berri planifikatzea (horietatik 3.044 babestuak, hirutik bi); 14 hektarea balio erantsi handiko enpresa jarduera bultzatzeko eta talentua atxikitzeko; Azkorri Getxoko aktibo natural gisa babestea; eta parke eta hurbileko ekipamendu eta zerbitzu berriak sortzea 191.600 m<sup>2</sup>-ko espazio libreetan, bizi, lan egin eta gozatu ahal izateko Getxo bat sustatuz.

Planak hausnarketa, plangintza eta lan partekatuko prozesu luze bat



amaitzen du, hamarkada bat baino gehiago iraun duena eta ordezkari publikoen, talde teknikoaren eta herritarren belaunaldi desberdinak inplikatu dituen. Informazioa emateko, jendaurrean jartzeko, alegazioak jaso eta ebazteko hainbat fasetatik igaro da, eta herritarren proposamenak sartu ditu, aldeko txosten sektorial guztiak izateaz gain, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa eta Kostaldeei, Aire Segurtasunari, Errepideei eta Trenbideei buruzko txostenak barne.

Onartutako planak:

- **Lurzoru urbanizagarria murrizten du** aurreko planarekin aldera-

tuta (2 milioi m<sup>2</sup> ez-urbanizagarri gisa sailkatzen ditu), beharrezkoa ez dena desklasifikatzen du eta **birika berde bat** sortzen du Getxorako. Aldi berean, Tosu, Muru edo Peña Santa Marina bezalako sektoreetan **etxebizitzetarako behar adina lurzoru erreserbatzen du, bereziki babestua eta alokairuan.**

- **Enpleguaren ikuspegitik, planak horizonte berri bat irekitzen du, Martiturri** jarduera berritzaile eta produktiboen polo gisa hartuta.

- **Gizartearen ikuspegitik**, eskaera historiko bati erantzuten zaio: **Fadura eta kirol-zuzkidurak handi-**

tzea, beste 14 jarduketekin batera, hiri-irrigarritasuna hobetzeko, kaleak irekitzeko eta desnibelak konpontzeko.

- **Hiri-lurzoruan integratutako 11 jarduketa eta bederatzi plan berezi biltzen ditu**, Portu Zaharra, Geltokiko plaza edo Andra Mari inguruak bezalako eremu desberdinetarako. Zuzkidurarako 50 jarduketa ere aurreikusten ditu, “hiriko kirurgiarako”, defizit zehatzak inpaktu handirik gabe konpontzeko.

- **Hiri-erabilerak malgutzen dira**, lehendik dauden eraikinen baldintzak modernizatzen dira eta ondarea kontserbatzeko aukerak zabaltzen dira.

- **Azkorri** aktibo natural gisa zaintzen du; Algortan etxebizitza eskuragarria birgaitzearen, dentsifikatzearen eta indartzearen aldeko apustua egiten du eta Portu Zaharra presio turistiko eta espekulatibotik babesten du. **Areetan**, hiri-kalitatea mantentzen saiatzen da, bazterkerian erori gabe. Berdegune berriak sartzen ditu, espazio publikoak berreskuratzen ditu eta lokalak etxebizitza bihurtzen ditu irizpide sozialekin.

**EAJ/PNVk** adierazi zuenez, “plan honekin ez gara adreiluaz ari, aukeraz baizik. Gure gazteei beren etxebizitza hemen aurkitzen uztekoa, lurraldea eta etorkizuna hipotekatu gabe. Eta Martiturri izango da, halaber, Getxoko gazteek enplegua lortzeko aukera izango duten gunea, garraio-azpiegiturei eta metropoli-sare ekonomikoari lotuta. Ondarearen arloan, babes handiagoa bultzatzen da, baina tresna gehiago ere bai, jabeek birgaitzeko eta balioa galdu gabe mantentzeko aukera izan dezaten. Etxebizitza, ekoizpen eta zuzkidura arloak orekatzen ditu; paisaia eta ondarea babesten ditu; jasangarritasuna, mugikortasuna eta gizarte kohesioa integratzen ditu. Ez da alderdi baten plana, baizik eta Getxo bizirik, bizitzeko moduan eta orekatuta mantentzea bilatzen duen ahalegin kolektibo baten emaitza. Perfektua ez dela existitzen jakitearen apaltasunez etorkizunari begiratzen dion plana, beharrezkoa denak ezin baitu itxaroten jarraitu”.

**PPk** adierazi zuenez, “herritarrek PPri emandako botoa plan berri honetara lekualdatu da, herritarren eskaerei erantzuten dielako: Andra Mari Gure Lurraren eta Trinitarioen Parrokiaren proposamenak, aparkalekuak sartzeko... Adostasunaren eta parte-hartzearen emaitza den dokumentua da”.

**EH-BILDU**ren ustez, “ez du etxebizitza-politika eraginkorrik proposatzen, ez dio gazteen exodoaren arazoari erantzuten, ez du ingurumenarekiko konpromiso ausart eta errealik erakusten, ez ditu auzoak biziberritzen eta, batez ere, ez ditu herritarrak erdigunean jartzen. Azken batean, HAPOk ez du Getxo hiri bizigarri eta kohesionatuaren eredu bihurtzen”.

**PSE-EEK** nabarmendu zuen prozesu luzea, zorrotza, elkarriketatua eta parte-hartzailea izan dela, eta azpimarratu zuen “HAPo zorrotasun teknikoko eta plangintza modernoko tresna dela. Aurreko plana nabarmen hobetzen du, adostasun-plan bat da, eta datozen 15 urteetarako hiri-proiektu bat, arreta pertsonengan, etxebizitzan eta jasangarritasunean jartzen duena”.

**ELKARREKIN PODEMOS-EPren** iritzian, “herritarrek ez dute ez plana ez eta planteatutako etxebizitza-politika babesten. Andra Mari hormigoiz estalita egongo da, alokairuko etxebizitza babesturik gabe. Gehiago eraikiko da, baina prezioek gora egiten jarraituko dute, eta gazteentzat eskurazinak izango dira. Ondarearen babesgabetasuna eta espazio natural gutxiago planteatzen ditu. Plan hau akats historikoa da Getxorentzat”.



## AZAROAK 13 OSTEGUNA

**Getxoko Klima eta Energia Plana. Aurrez aurreko parte-hartze saioa.** 19:30h, Getxo Elkartearen (Ogoño kalea 1, Areeta). Herritarrei irekia. Plaza mugatuak. Inskripzioa: <https://labur.eus/4hliqk> Antolatzailea: Udala.

**Hitzaldia.** 18:30ean, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "¿Qué pasa en Venezuela?". Hizlariak: Juan Manuel Hernández Legazcue (KFAko eta PCPEko militantea) eta Glenna Cabello (Venezuelako kontsula Bilbon). Antolatzailea: Ezkerretik Foroa.

**Zinemabarrin.** 19:00h, Muxikebarrin, Pablo Hernandezen "Una ballena" (gaztelaniaz). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

## AZAROAK 14 OSTIRALA

**Kontularien kluba.** 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten helduen bilera (gaztelaniaz).

**Dantza.** 20:00etan, Muxikebarrin, "You have a inner world, so what? - Tienes una vida interior ¿y qué?". 6 euro.

**Zine-Kluba.** 20:30ean, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, Alain Giraudieren "Misericordia". 16 urtetik aurrera. 3,50 euro.

## AZAROAK 15 LARUNBATA

**Ipuin kontaketa. Storytime.** 11:00etan, Romo Kultur Etxean, "The far west" (ingelesez). 3-7 urte. Izena emateko (doan): [ge-txo@kidsandus.es](mailto:ge-txo@kidsandus.es) / [algorta@kidsandus.es](http://algorta@kidsandus.es)

**Kontzertua.** 20:00etan, Muxikebarrin, Kerobia (pop-rock). 10 euro.

## AZAROAK 16 IGANDEA

**Zinemaxiki.** 12:00etan, Muxikebarrin, "Una noche en Zoópolis" (gaztelaniaz). Adin guztiertzat. 2,50 euro.

**Haur ikuskizuna.** 18:00etan, Muxikebarrin, "La tormenta" (gaztelaniaz), mimo, dantza, txo-txongiloak eta antzerkia, Zero en conducta konpainiarekin. 8 urtetik aurrera. 8 euro.

## AZAROAK 18 ASTEARTEA

**Solasaldia** "Contratos de telefonía, energía y demás básicos", 17:00etan, Urgull Zentroan, 60 urtetik gorakoentzat. Antolatzailea: Udala

**Hitzaldia.** 18:30ean, Romo Kultur Etxean, "La Ley de Garantía Integral de la Libertad Sexual: fortalezas y debilidades". Hizlaria: Reyes Goenaga (Bizkaiko Probintzia Auzitegiko presidentea). Antolatzailea: Gizatiar-Romo-Areetako emakumeen elkar-te soziokulturala.

## AZAROAK 19 ASTEAZKENA

**Liburu-aurrezpena.** 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Arcoiris en la niebla" liburuaren aurrezpena (gaztelaniaz), Igone Dublín bere egilearen eskutik.

**"AixeGetxo!" kultur sarien banaketa 2025.** 19:00etan Muxikebarrin. Gonbidapenarekin (Muxikebarri eta Romo Kultur Etxeko txarteldegietan).

## AZAROAK 20 OSTEGUNA

**Ipuinaren ordua.** 18:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte) "Musikaren bidaia" (euskaraz), Sorgina Pirulinarekin. 4-8 urte. Doan. Izena emateko: [www.getxo.eus/apuntazaitz](http://www.getxo.eus/apuntazaitz)

**Zinemabarrin.** 19:00h, Muxikebarrin, Boris Lojkineren "La historia de Souleymane" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

**Hitzaldia.** 18:30ean, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Etxebizitza eta gazteak. Aukerak eta baliabideak". Antolatzailea: Gazteria Zerbitzua.

**Etxebizitza buruzko belaunaldien arteko Topagunea.** "¿Puede la convivencia entre generaciones ser parte de la solución al reto de la vivienda?". 18:00etan, Romo Kultur Etxean. Izenematea: <https://labur.eus/dapcxbss>

## AZAROAK 21 OSTIRALA

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Loreen hizkuntza" (euskaraz), La Mapatxarekin. 10 euro.

**Zine-Kluba.** 20:30ean, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, Celia Ricoren "La buena letra". 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

**Mahai-ingurua.** 18:30ean, Romo Kultur Etxean, "Cómo detectar la violencia y protocolos de actuación". Hizlariak: Nekane San Miguel (epailea) eta Inma Mata (genero indarkeriatik bizirik ateratakoa). Antolatzailea: Gizatiar.

## AZAROAK 22 LARUNBATA

**Kontzertua. Emakumeak musikan.** 17:00etan eta 19:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Musikalia bandaren eskutik.

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Bodas de sangre" (gaztelaniaz), Sin Remilgos konpainiarekin. 3 euro.

## AZAROAK 23 IGANDEA

**Zinemaxiki.** 12:00etan, Muxikebarrin, "Barraskiloa eta balea" (euskaraz). 2,50 euro.

**Haur zinea.** 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Tximinoen izarra" (euskaraz). 2,50 euro.

**Haur ikuskizuna.** 18:00etan, Muxikebarrin, "Mute... eta hegan!" (euskaraz), Orain-Bi konpainiarekin. 8 euro.

**Antzerkia. Emakumeak eszenan.** 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Alas de hierro" (gaztelaniaz), Kalamua Antzerkia Elkar-tearekin. 4,50 euro.

**Santa Zeziliako kontzertua.** 19:45ean, Ama Mesedeetako parrokiaren, Ars Canticum Ensemble.

- **Salgai** garaje-partzela, tras-telekuarekin, auto ertainerako. Basarrate kalea 11. Tel.: 645 49 29 11.



## Getxok Memoria Eguna ospatu du

Joan den astelehenean, azaroaren 10ean, ospatu zen Memoriaren Eguna dela eta, Amaia Aguirre Getxoko alkateak eta EAJ-PNV, PSE-EE, EH-Bildu eta Elkarrekin Podemoseko ordezkariak elkarretaratze isil batean parte hartu zuten udaletxeko zabalgunean. Memoriaren Egunaren ospakizuna, terrorismoaren eta motibazio politikoko indarkeriaren biktimak oroitzeko eta omentzeko, iraganaren hausnarketa kritikoa bultzatzera bideratuta dago.

## Ihoberen dirulaguntzak garapen jasangarrirako

Udalak 264.070 euro jaso ditu guztira, Ihobe Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak emandako diru-laguntzetan, 2023ko deialdiari dagozkionak, tokiko eremuan garapen jasangarria bultzatzeko hainbat jardueraildo garatzeko. Egun prestatzen ari den Getxoko Klima eta Energia Planaz gain (KETP), 11.600 euroko laguntza jaso baitu, dagoeneko gauzatu diren beste bost jarduera ere Ihobek finantzatu ditu:

- Klima-aldaketaren aurkako borrokan, KETPrekin batera, Algortako Areneko bidegorriaren proiektua idaztea, obra zuzentzea eta gauzatzeta. Diruz lagundutako zenbatekoa: 80.000 euro.

• Natura-ondarean, Kan-deluzubieta errearen ingurumen-berreskurapena. Diru-laguntza: 46.470 euro.

• Ekonomia zirkularri dagokionez, Garbigertu zerbitzuko edukiontzia ezartzea. Diru-laguntza: 30.000 euro.

• Tokiko ekoberrikuntzari dagokionez, biolehorjeta bidezko transferentzia-planta ezartzea. Diru-laguntza: 80.000 euro.

• Eta Jasangarritasunerako Hezkuntzan, Eskolako Agendaren eta 2023 Agendaren koordinazioa. Diru-laguntza: 16.000 euro.



## Berdeguneetako parterreak erabat berritzea

Udalak hainbat eremutako parterreen berrikuntza integralari ekin dio, udalerriko berdeguneak edertzeko eta jasangarriagoak eta atseginagoak egiteko. Hala, jarduera honen helburu dira, besteak beste, Juan Bautista Zabala, Tellagorri, Bidezabal, Villaondoeta edo Santa Eugenia plazan dauden parterreak, non landare eta zuhaitz autoktonoen hainbat espezie landatu diren eta lorategidun irlatxoak hobetu diren. Bestalde, berri berri diren eremu batzuetan gertatu diren landare lapurretan aurrean, Udalak gizalegea eta erantzukizun kolektiboa eskatzen ditu berriro ere, komunitate osoari kalte egiten dioten ekintza bandalikoak saihesteko.

## Gaitzespena udaltzainei egindako erasoagatik

Udaleko Bozeramaileen Batzordeak aurreko ostiralean Adierazpen Instituzional bat onartu zuen Udaltzaingoko agente batzuek urriaren 25ean egindako interbentzio batean jasandako eraso gaitzesteko, EAJ/PNV, PP eta PSE-EEren aldeko botoekin, eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos taldeen abstentzioekin onartutako testu baten bidez.

Besteak beste, Adierazpen horrek Euskal Polizia osoa eta bereziki Getxoko Udaltzaingoa aitortu eta babesten ditu, eta beren eginkizunak betetzean edo horiek direla eta, agenteen aurkako edozein indarkeria-mota gaitzetsi eta arbuizten du. Adierazpen osoa: <https://labur.eus/pc1gwa7l>

## Antzerki tailerra adinekoentzat

+60 dinamizazioko udal Zerbitzuak antzerki tailer bat antolatu du 60 urtetik gorako pertsonentzat. Ekimenaren helburua izango da emozioak lantzea, giza harremanak sustatzea, eta enpatia eta elkartasuna areagotzea. Saioak asteazkenetan izango dira, 10:00etatik 11:30era, Romo Kultur Etxean. Parte hartu nahi duten pertsonen doako izenematea 677 35 33 72 telefono zenbakian egin dezakete.

## Aintzatespena eCivis eta Trinitariasentzat

eCivis elkarteak eta Santísima Trinidad ikastetxeak nazioarteko aintzatespena jaso dute United Nations University-ren eskutik, RCE Awards sarien barruan. RCE Awards-ek urtero Garapen Iraunkorren Hezkuntzarako Esperientzia Zentro Erregionalen (RCE) proiektu eta ekimenei ematen dizkiete horiek. eCivis-ek Proiektu Enblematikoaren errekonozimendua jaso du *Musika eta Zure Begirada* ekimenagatik, eta Trinidad ikastetxearen *Sustrai globalak, tokiko haizak* proiektuak oherrezko aipamena gazteek gidatutako proiektuetan.



Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukiaren egiazko-tasunaren erantzule izango.



## “You have an inner world, so what?”, heldutasuna dantzan

Proyecto Larrua dantza garaikideko konpainiaren La senior taldeak *You have an inner world, so what?* muntaia antzeztuko du ostiral honetan, hilak 14, Muxikebarrin. (Barne bizitza duzu, eta zer?), 40 urtetik gorako dantzarien heldutasun eszenikoa balioesten duen esplorazio koreografikoa. Ikuskitzuna 20:00etan hasiko da eta sarrerak 6 euro balio du.

Dantza-pieza hau dantzari profesionalen denboraren joanari buruzko hausnarketa sakon batetik sortzen da, dantzaren adinari buruzko estereotipoei aurre egiteko. Bizi, dantzu, sufritu, gozatu... eta eraldatu diren gorputzak dira. Gorputz erabiliak eta esperientziak beteak dira. Bizitza arte horretan eman dutenen esperientziari, aniztasunari eta erresilientziari egindako omenaldia da.



## Kerobiak bere azken lana aurkeztuko du, “Poliorkêtês”

Kerobia pop-rock talde nafarra Muxikebarrira iritsiko da *Poliorkêtês* lan berriarekin. Kontzertuan aurkeztuko du larunbat honetan, hilak 15, 20:00etan, eta sarreraren prezioa 10 eurokoa da. Xabi Bandiniren izen bereko kontakizunean oinarrituta, diskoak

oso kantu zainduak, kontsola-garriak eta ahotsaren bibrazioa, melodia, egurra eta sokak protagonista dituztenak biltzen ditu. Munduaz eta musikaz nekatu ondoren, hamaika gelako etxe batean sartzen den pertsona baten istorioa kontatzen du diskoak.



## “La Tormenta”, familia-ikuskitzuna

Zero jokabidean konpainiak *La tormenta* ikuskizuna taularatuko du igande honetan, hilak 16, Muxikebarrin, 18:00etatik aurrera. Familia osoarentzako proposamena da, non protagonistek, hizkuntza paregabearekin, gorputz mimoa, dantza, txotxongiloak eta antzerki fisikoa uztartzen dituzten. Antzezialan gure emozioak Pablitoren bidez azaleratzearen garrantziak hitz egiten du, aspalditik hodei batek bere irribarrearri argia kentzen dion haur baten bidez. Sarrera: 8 euro.

## Getxotarren 19 proiektu Getxo Eszena Irekian

Getxo Kulturak getxotarrek sustatu edo egindako 19 proiektu erakutsiko ditu datorren urtean. Getxo Eszena Irekiaren deialdian hautatutako proposamenak Muxikebarrin eta aire zabaleko espazioetan zehar programatuko dira. 70.000 euro inguru bideratuko dira ekimen horretara, espazioak, baliabide teknikoak eta giza baliabideak lagatzearen ondoriozko gastuez gain.



Edizio honetan deialdia hiru modalitatetan antolatu da. Lehenengo, sektoreko profesionali zuzendua; bigarrena, irabazi asmorik gabeko kultur elkarten kargurako proiektu ez-profesionalei; eta hirugarrena, irabazi asmorik gabeko kultur elkarteek aurkeztutako proiektu soziokulturaleri.

Proiektu profesionalen atalean, zortzi proposamen aukeratu dira, Javier Liñerak, Producciones Garrrotek, Lucía Astigarragak, Mikel Arostegui eta Iñigo Morok, Bramant Teatrek, Almudena Perezek, SSASK Dantza Elkarteak eta Zela-

ko Kultur Ideiak bultzatutakoak. Modalitate ez-profesionalean, zazpi proiektu aukeratu dira: Bringas, Alberto Mielgo, Lilura abesbatza, All 'Antika Musika, Oihane García, Zauriak Miazkatu Kultur Elkarteak, Euskal Herriko Casteller Taldea eta Colla Joves Xiquetsde Valls.

Azkenik, irabazi asmorik gabeko elkarten proiektu soziokulturalak Neken Musika Elkarteak eta Kimetz Eskuz Esku eta Itxartu Taldearenak izan dira.

## Kultura eta gizarte intereseko jardueretarako diru-laguntzak

Getxo Kulturak 343.000 euro baino gehiago bideratu ditu tokiko elkarte eta erakundeetara, interes publiko kultural eta sozialeko ekimenak garatu ahal izan ditzaten, Getxoko kolektiboen jardueraren sustapena indartzeko.

Guztira, 343.542 euro bideratu dira tokiko 23 elkarerentzako diru-laguntzen bidez. Horietatik 189.542 euro Begihandi, Utopian, Patronato Alday, Ondarreta abesbatza eta Andrés Isasi Musikalía Elkarteak kolektiboentzako laguntza-hitzarimenei dagozkie.

Begihandi kultur elkarteak 105.000 euro jaso ditu Getxophoto Irudi Jaialdia antolatzeko. Utopian Kooperatiba Elkartearentzat 31.542 euro bideratu dira arte eszenikoak sortzeko espazio bat kudeatzeko eta garatzeko (prestatuntza, ikerketa, ikuskizunen ekoizpena eta erakusketa). Alday Patronatuaren Elkartearen kasuan, 18.500 euro jaso ditu hamabi ikasgela eta bi lokal dituen gune bat kudeatzeko, tokiko klub eta elkartei kultura, arte eta zientzia arloko jarduerak programatzeko eskaintzen diena. Andrés Isasi-Musikalía elkarteak 16.500 euro hartu ditu musika interpretazioan interesa duten pertsona guztiek jarduera hau garatu ahal izan dezaten, baita musika sustatu eta zabaltzeko ere. Gainera, Getxo Kulturak 18.000 euro eman dizkio Ondarreta abesbatzari lokal baten aldi baterako alokairuari aurre egiteko.

Gainera, 19 elkarteren diru-laguntza arruntak hartuko dituzte, 154.000 euro, beren jarduera garatzeko: Ondarreta, Agurra, Antzezaleak, Aretxondo, Ballet Joven Artederra, Merklin Organoko Lagunak, Allantika Musika, Basozaleak, Bentaranoa, Berantzagi, Biotz Alai, Irutasun, Eskuz-Esku, Itxas Argia, Itxartu, Kimetz, Lilura, Zasi Eskola eta Zozoak.



## Angel J. Sanchez argazkilaria saritu dute Parisen

Ángel J. Sánchez getxotarra *Sport Photographer of the Year* izendatu dute Parisko Photographie-ko Prix-etan, Europako argazkigintza artistikoaren lehiaketa ospetsuenetako batean. Saritutako lanak, *Weightless in the Guggenheim Bilbao*, *Weightless* seriekoa, Bilboko Red Bull Cliff Diving-en hainbat ediziotan egina, kirol keinua arintasunari, gorputzari eta arkitekturari buruzko ikusizko poetika bihurtzen du.

## Boluntariotza Sarirako hautagaitzak

Azaroaren 16an amaituko da XX-XII. Getxoko Boluntariotza Sarirako hautagaitzak aurkezteko epea. Udalaren laguntzarekin, SAREKIDE Getxoko Boluntarioen Erakundearen Elkarteak antolatutako sariak dira. Horiek pertsona fisiko edo juridikoek bai boluntariotza-jardueran bai boluntariotzaren sustapenean eta boluntariotza funtsezko elementu den proiektuen garapenean egiten duten lan indibidual zein kolektiboaren aintzatespena da.

Banakako modalitateari dagokionez, sari bat emango da pertsona fisikoentzat baita kolektiboan ere, erakunde sozialentzat deitutako modalitatean, erakunde horiek egindako lana eskertzeko. Sariak urtearen amaieran ospatuko den ekitaldi batean banatuko dituzte. Oinarriak: <http://www.sarekide-getxo.org>

## Urteko hitzarmen berriak Euskal Fondoa, ATFAL eta Zabalketa elkarteekin

Beste urte batez, Udalak lankidetzaren ikuspegitik garrantzi bereziko proiektuak sustatzen jarraituko du, Euskal Fondoa, Getxoko ATFAL Sahararen aldeko eta Zabalketa elkarteekin adostutako hitzarmenen bidez. *"Hitzarmen horien bidez, Getxok berretsi egiten du txirotutako testuingurutan dauden pertsonen bizitza hobetzeko eta etorkizunerako komunitate bidezkoagoak eta indartsuagoak erakitzeko konpromisoa"*, azaldu du Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinegotziak.

Zehazki, Euskal Fondoak 53.550 euro jasoko ditu Nikaraguako Tipitapan auzoko euri-drainatze proiektu baten hirugarren fasarako, bertako biztanleen bizi-kalitatea, oinezkoen mugikortasuna, irisgarritasuna eta garraioa hobetze aldera, baita osasungarritasuna ere, gaixotasun- eta uholde-gu-neak saihesten baitira.

Bestalde, 37.800 euro izango dira ATFAL elkartearentzat, Tindufeko kanpalekuan dauden saharar errefuxiatuen elikadura bermatzen laguntzeko, ezgaitasunen bat duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko beren birgizartratzea sustatuz, 5 haurren osasuna hobetzeko, eta udan familia getxotarrekin haurren harrera eta kultura-trukea indartzeko *Oporrak Bakean-Vacaciones en Paz* izeneko ekimenaren bidez.



Moukoulou elkarte (Txad)

## 381.650 euro 14 proiektu aurrera eramateko txirotutako herrialdetan

Udalak 381.650 euro banatuko ditu Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek txirotutako herrialdeetan aurrera eramango dituzten 14 proiekturen artean (6 Amerikan, 6 Afrikan eta 2 Asian), aurtengo laguntzen deialdian. Helburua da Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzearen alde lan egiten jarraitzea.

Dirua jasoko duten proiektu horiei esker 23.462 pertsonak (horietatik 14.869 emakume), horien gaitasunak handituko dituzte, besteak beste, hezkuntza, emakumeen ahalduntze, tokiko garapen eta administrazio publiko eta elikagaien segurtasun, uraren arazketako alorretan aurrera eramango dituzten ekimenen bidez.

### Diruz lagundutako proiektuak

- 46.000 euro San Martín de Tours & Misio Taldearentzat eta Mufungako Lagunen Fundazioarentzat, Kansenyan eskolaratze proiektu baterako (Kongoko E.D.).
- 30.000 euro Zabalketarentzat, Peruko Itayaren ondoko komunitateetan indarkeriaren kontrako borrokarako.
- 30.000 euro Entre Amigos-Lagun Artean elkartearentzat, Guatemalan emakumeen kontrako biolentziak prebenitzeko eta eskubideak defendatzeko.
- 30.000 euro Alboanentzat, emakume indigenen antolakuntza sendotzeko Indiako hegoaldean.
- 30.000 euro Sunu Buga Buga erakundearentzat Garapen Osoko Komunitarioko Zentro baterako, Gambian.
- 30.000 euro Agua de Coco entitatearentzat, haurren eskubideak bermatzeko Madagaskarreko Tulearren.
- 29.998 euro Medicus Mundirentzat, haurtzaroan elikadura-subiranotasunaren sustapena eta desnutrizioaren prebentzioa sustatzeko, Guatemalan.
- 29.997 euro Ayuda Más-i, emakumeen ahalduntzerako Txaden.
- 29.987 euro Herriarte-Entrepueblosentzat, Chiapasen sistema indigena indartzeko.
- 28.626 euro Mugarik Gaberentzat, Guatemalan emakume, gazte eta agente indigenen eskubideak baliatzeko gaitasunak hobetzeko.
- 25.807 euro Eki Fundazioarentzat, eguzki-energia fotovoltaikoa instalatzeko Ugandan.
- 18.069 euro Bolivian ureztatzeko mikrosistemak instalatzeko.
- 10.563 euro Taldeka Lagunduzi, Dalit gazte eta emakumeak ahalduntzeko India.

Azkenik, Zabalketa Gobernu Kanpoko Erakundeak 26.250 euro izango ditu, biztanleekin eta herrialde pobretuekin tokiko herritar sentsibilizatuak eta konprometituak sustatzeko eta finkatzeko, garapen- eta lankidetzaren eragileekin batera aurrera eramaten dituzten ekimenen bidez.

Horretarako, besteak beste, GGKEen lana ikusaraziko da saltokien bidez, eta *SolidaridUP* proiektuak planteatzen dituen estrategien berri eman eta zabalduko da, merkatariek, GGKEek eta Hirugarren Sektoreko elkarteek osatua.



### Senide zaintzaileen VII. Topaketa

Mendekotasuna duten pertsonen 60 bat senide zaintzaile omendu zituen Udalak ostiralean, hilak 7, Romo Kultur Etxean antolatutako ekitaldian, azaroaren 5ean Zaintzaileen Nazioarteko Eguna ospatu zela eta. Bertan Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinegotziak haien ahalegina eta lana eskertu zituen, eta nabarmendu zuen *"bere denbora, ahalegin eta maitasunarekin egunero beste pertsona batzuen bizitza beren maitasunetik, erantzukizunetik eta loturatik sostengatzen dutenei omenaldi berezia egiteko bildu gara. Getxok konpromisoa du zaintzen duten pertsonekin, zaintzea ezin baita zeregin baktaria izan. Familien, komunitatearen eta erakunde publikoen arteko ardura partekatua izan behar du"*.

Bestalde, ekintza humanitarioko eta larrialdietako arloan, aurten ACNURrek 12.600 euro jasoko ditu, Hego Sudanera lekualdatutako biztanleentzat.


• Turismo Informazio eta Harrerako Udal Zerbitzuak 19.123 turista eta bisitari hartu zituen ekainetik irailera. Atzerriko eta Europar Batasuneko turismoa guztizkoaren %45 da.

• Abuztua da oraindik ere hilabete turistiko nagusia, batez besteko %87,80ko okupazio-indizea izanik.

• Gora egin du Bizkaia Zubiaren pasabidea bisitatu duten pertsonen kopuruak (+%5), bai eta Kirol Portura iritsi diren iragaitzazko ontzien kopuruak ere (+%56).

## Getxoko hoteletako okupazioak eta batez besteko egonaldiak gora egin dute uda honetan

Getxoko hotel-establezimenduetako batez besteko okupazioa %84koa izan zen udan (ekainairaila), iaz baino %2,68 gehiago. Turismo Bulegoaren datuen arabera, hoteletako okupazioa ia 7 puntu igo zen, %86,52ra iritsiz, 2,22 eguneko batez besteko egonaldia eginik. Ostatueta, ordea, okupazioa %72,21era eta 2,23 eguneko batez besteko egonaldira jaitsi zen. Apartamentu turistikoek ere oso okupazio ona izan zuten (%95,26), eta sasoi batzuetan bete ta egon ziren. Ignacio Uriarte Turismo zinegotziak adierazi duen bezala, "datu horiek erakusten dute Getxo kalitatezko helmuga gisa finkatzen dela Euskal Kostaldean, proposamen erakargarria eta orekatua eskainiz, nazioarteko proiektioa ere indartzen duena. Gainera, turismo-sektorearen konpromisoa eta lana funtsezkoak dira eredu jasangarria eta bikaina garatzen jarraitzeko".



Beste behin ere, abuztua izan zen hilabete turistikoena ostatueta, batez besteko okupazio-indizea %87,80koa izan baitzen. Jatorriaren arabera, Madrilgo turismoa izan zen nabarmenena (%10), ondoren Kataluniakoa hoteletan eta Euska-

dikoa ostatueta. Batasuneko eta atzerriko gehienak Frantziatik etorri ziren, ondoren Erresuma Batutik eta Alemaniatik.

Udalaren Informazio eta Harrera Zerbitzuari dagokionez, Ereagako

Bulegoan eta Bizkaia Zubiko ITPan 19.123 turista eta bisitari artatu ziren, 2024an baino %14 gutxiago; horien %90,38 turistak izan ziren (Bizkaitik kanpokoak). Turismo gehiena, %45, atzerrikoa eta Europar Batasuneko izan zen, eta %44 estatukoa (aurreko urtean baino %12 gutxiago). Erresuma Batutik 2.000 pertsona baino gehiago iritsi ziren (turista guztien %11 udan), Madrildik 1.951 bisitari, eta, haien atzetik, Katalunia, Andaluzia, Frantzia eta Alemaniatik.

Baliabide turistiko aipagarrienei dagokionez, 42.974 turistak bisitatu zuten Bizkaia Zubiaren pasabidea (+%5); horietatik %49 atzeritarrak eta Europako Batasunekoak izan ziren, eta Alemania izan zen buru.

Getxoko Kirol Portuan iragaitzazko 268 belaontzi izan ziren, 664 tripulatzaile izanik, 2024an baino %56 gehiago.

## Gabonetan Madrilera bidaiak gazteentzat

Udaleko Gazteria Zerbitzuak eta Gauegun (Algorta) eta Guregun (Romo) gaztelekuak Gabonetan (abendua 26-27) irteera antolatu dute 15 eta 17 urte bitarteko gazteentzat. Ekimen hau gazteen garapen integrala, haien autonomia pertsonala eta bizitza komunitarioan parte-hartze aktiboa sustatzeko politika publikoen barruan kokatzen da. Mihaela Jilavu Gazteriako zinegotziak adierazi duenez, "aisialdiko jarduerak hutsa izatetik urrun,

bidaiak planteatzen da bizipen-ikas-kuntzako hezkuntza-proiektu gisa, testuinguru ez-formalean gaitasun pertsonalak eta sozialak eskuratzera eta indartzera bideratuta. Bizikidetzaren, mugikortasunaren eta errealitate berriekiko harremanaren bidez, parte-hartzaileek aukera dute beren eguneroko prestakuntza osatzen eta aberasten duten hazkunde indibiduala eta kolektiboko prozesuak esperimentatzeko".

Izena eman ahal izateko, gazteek

bideo bat egin beharko dute, gutxi gorabehera minutu batekoa, eta azaroaren 17a baino lehen aurkeztu. Hau azaldu behar dute: izena (abizenik gabe), adina eta zein Gaztelektutara doan, azaldu Gazteleku bat zer den adin bereko pertsona bati eta animatu edo gonbidatu pertsona hori Gaztelekuan parte hartzera. Informazio gehiago 688 84 03 56 telefono zenbakian eta [gauegun-gaztelekua@getxo.eus](mailto:gauegun-gaztelekua@getxo.eus) helbide elektronikoan.

## Haurrentzako postal lehiaketa

Abendua Getxon lelopean, Ingurumen Aretoak Haurrentzako Postal Lehiaketa berria antolatu du. Horren bitartez, gazteen sormena eta begirada artistikoa sustatu nahi dira, eta abenduan gure inguruan duten ikuspegi berezia postal batean islatzera animatu: paisaiak, ospakizunak, tradizioak, emozioak, neguko natura, argiak eta familiarrean eta lagunekin partekatutako uneak.

Lehiaketan dohainik parte hartu ahal da, 4 eta 15 urte bitarteko adingabeei dago zuzenduta eta lanak aurkezteko epea (postal bat parte-hartzaile bakoitzeko) azaroaren 30era arte dago zabalik. Aretoan bertan edo [info@ingurumenaretoa-getxo.eus](mailto:info@ingurumenaretoa-getxo.eus)-en entregatu daiteke. Informazioa: tel. 688 883 596.



## Erakusketa eta omenaldi-gala Etorkezunaren 50. urteurrenean

Etorkezuna Mendi Taldeak bere bizitzaren 50 urteetan izan duen bilakaera azalduko du erakusketa batean. Hile honen 17tik 30era bisitatu ahal izango da Fadurako TikiToki Zentroan. Erakusketan, hainbat argazki, kartel, jaso-tako sari eta mendirako ekipamendua bilduko dira, besteak beste. Taldearen 50. urteurrenaren testuinguruan, urte guzti hauetan bere jardueretan parte hartu duten pertsona guztiak oroitzeko eta omentzeko ekitaldi bat ere antolatu du. TikiToki Zentroan egingo da hori ere, hilaren 21ean, ostirala, 19:00etan (gonbidapena behar da); eta, azkenik, hitzaldi bat izango da Pou anaiekin, dohainik, hilaren 24an, astelehena, 19:00etan Muxikebarrin, *Lau elementuen erronka* goiburu pean.

## Hegaztien behaketa Abran

Bola hondartza ondoko pasealekuan, datorren larunbatean, hilak 22, babes-teko, elikatze eta migrazioan atsedean hartzeko Abra baliatzen duten hegazti espezieak begiratzeko beste jarduerak bat egingo da. Bertaratan den jendeari erakutsi nahi zaio kostalde inguru honetako hegaztien aberastasuna, hala nola anatidoak, kaioak, lertxunak, limikolak eta txenadak. Hegazti horien balioak eta natura-inguruneari egiten dioten ekarpena transmititzeko saiakera egingo da, haiek behatuz, gozatuz eta identifikatuz. Udalak antolatuta, jardueraren ordutegia honako hau izango da: 09:30etik 13:30era; dohainik da eta ez da beharrezkoa alde aurretik izena ematea.

## Erakusketa Ingurumen Aretoan

Larrañazubiko Ingurumen Aretoan Angel Sánchez argazkilariaren *Donde rompen las olas* erakusketa dago abenduaren 16ra arte. Hain zuzen, 28 irudiez osatutako erakusketa da, itsasoaren eta itsasoa behatzen dutenen arteko elkarrizketa gisa aurkezten digutenak, naturaren eta giza emozioen artekoa, irudi bakiotzean agian geure buruaren isla bat aurkituko dugulako promesarekin. Bisitatzeko ordutegia: 10:00-14:00 eta 15:30-17:30 astegunetan, eta 10:00-14:00 asteburu eta jaiegunetan.

# Udal talde politikoaren iritzia



## AZKENEAN BAI, GETXOKO HAPOa ONETSI DA



Iragan astelehenean, azaroaren 10ean, Getxoko Udaleko osoko bilkura Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onetsi zuen, Getxok hurrengo urteetan izango dituen erabilerak diseinatzeko, antolatze, planifikatzeko eta ordenatzeko tresna, alegia. Urte asko luzatu da HAPOa, bai, eta aldez aurretik izapidetze-lana nekeza izan da. Lan zabala eta oso konplexua izan da, entzuteko, azaltzeko, moldatzeko, berriz ere diseinatzeko, adierazteko, hitz egiteko

eta, batez ere, beharrak ahalik eta hoberen jorratzen eta erantzuten saiatzeko tartea hartu dugu. Zehazki, kontuan izan ditugu Getxoko behar orokorrak eta HAPOaren parte-hartze eta komunikazio-une bakoitzean auzokideek planteatu dituzten behar ugari, bakoitza bere ñabardura, interes eta zailtasunekin. Demagogia-abiapuntu izanik faltsukeria eta hala-holako egia ugari bota dira, eta, garapen jasangarria ardatz hartuta, poli-

tikoki erabili da Getxon aukera-esparru berria bermatzen duen tresna hain garrantzitsua dena. Gizartearen eta hirigintzaren ikuspuntutik kohesioa duen hiri izango da; Getxo jasangarria, segurua, erresilientea, trinkoa eta inklusiboa izango da; giza-izaera galdu gabe eta genero-ikuspegia kontuan izanda.

Belaunaldiarteko eta gizarte-ikuspegitik abiatuta, Getxok auzoen garapen orekatua lantzeko aukera izango du eta familia-eredu berriei arreta jarriko die. Horretarako, bizitoki-eredua berria izango da eta proposatutako etxebizitza berrien %70 etxebizitza publikoak izatea aurreikusi da.

Gure hiri-eredua trinkoa da, kontziliazioan eta zaintzen arretan ere aurrera egin ahal izateko; izan ere, hiriguneak bilatzen ditugu, zeinek ahalbidetzen diguten egunerokoan dena eskura eta hurbil izatea: etxebizitza, lana, saltokiak eta zerbitzuak, azpiegiturak eta espazio publikoak. Hori

guztia, mugikortasuna eta irisgarritasuna muina izanda.

Getxoko HAPOak hurrengo urteetarako azpimarratu egiten du ingurumen-balio handiko guneak errespetatzea eta korridore berdeak babestea, baita Getxon lurzorua- ren okupazioaren ehuneko murriztea ere. Tresna honetan ardatz ekonomiko, noski, funtsezkoa da; besteak beste, Martiturri parkean jarduera ekonomiko berrietarako aukera dago, lurzoru produktibo estrategikoa sustatzen du eta bizitzeko eta lan egiteko hiriaren arteko beharrezkoa den oreka sortzen du.

Bidea oso luzea eta oso zaila izan den arren, EAJ-PNVk Getxoko biztanleekin konpromisoa bete du.

Badaukagu Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, eta horrek hazkunde jasangarria bermatuko digu, auzoak hirian txertatzeko balditzapean, hiri BATERATU eta ATSEGINean, alegia.



## AUZOKIDEEN ESKAEREI ERANTZUTEN DIEN HAPO BERRIAREN ALDE

Gure alderdia Hiri Antolamenduko Plan Orokorren (HAPO) alde dago, auzokideen eskaera nagusiei eta urte askotan defendatu ditugun proposamen ugariari erantzuten dielako. Adostasunaren, parte-hartzearen eta zentzua- ren fruitua da dokumentua.

Horrekin batera, Salsidun 180 etxebizitza eraistea saihestu da, Salsidualden kontrolik gabe eraikitzea geldiarazi da eta Martiturriko auzokideekin adostutako konponbidea lortu da. Planak, halaber, txertatu egin ditu Andra Mari Gure Lurraren proposamenak, Aita

Trinitarioen parrokiaren 10.000 sinadura baino gehiago eta arkitektoen, auzokideen eta jabeen ekarpenak. Horrez gain, Errotatxu poligonoko enpresen eskaerei erantzuteko 240 apartakaleku mantentzen ditu eta 4.000 etxebizitzaren poltsa sortzea sustatzen du, etxebizitza eskuragarriago izateko funtsezko alderdia baita. Iragan azaroaren 10ean egindako ezohiko osoko bilkuran, HAPOaren aldeko botoa eman genuen, gure iritziz, planak interes orokorrari erantzuten dielako eta udalerrria modu orekatuan eta jasangarrian garatzeko oinarriak ezartzen dituelako.



## ehbildu

## OSOKO ZUZENKETA AURKEZTU DIOGU GETXOKO HAPOARI: "EZ DU HERRI-EREDU BERRIRIK EKARTZEN"

Azaroaren 10ean onartu da Hirigintza Antolamendurako Plangintza Orokorra (HAPO), EAJ, PSE eta PPren botoei esker. Guk, Getxoko EH Bildutik, osoko zuzenketa aurkeztu diogu udal gobernuak proposatutako plan honi, ez garelako ados haren norabidearekin.

Plan honek ez du herri-eredu berririk ekartzen; ez ditu etxebizitza-politika eraginkorrak proposatzen, ez du ingurumenarekiko konpromiso ausart eta errealik erakusten, eta ez ditu herritarrak erdigunean jartzen. Egia da HAPOk etxebizitza babestuak aurreikusten dituela, baina legeak ezartzen duen gu-

txienekoan geratzen da. Eta noiz eta non egingo dira? Inork ez daki —hamar urte barru, agian, eta hiri-erdiguneetatik urrun. Eredu zaharren beste adierazle bat: lo egiteko herriarena.

Askotan esan dugu etxebizitza-plana ezin dela eraikuntzan soilik oinarritu. EH Bildutik proposatu ditugu neurri errealak: alokairurako indize publikoa, bitartekaritza-zerbitzua, etxebizitza hutsak mobilizatzeke plana, gazteentzako etxebizitza kolaboratiboak eta etxebizitza hutsei IBI gaitz, besteak beste. Horiek guztiak koordinatzeko, Etxebizitza Udal-Erakunde

sortzea proposatu dugu. Eraikuntza hutsean oinarritutako plana ez da inoiz etxebizitza-plana izango; hori plan espekulatiboa da.

Gainera, HAPOk ez die erantzuten gure herriak dituen erronka nagusiei: jasangarritasunari, auzoen arteko desorekari, gazteen egoerari edo bizitza sozialaren ahultzeari. Ez da plan ausart eta berritzaile bat, ezta herritarren bizikaltatea hobetuko duen hiri-eredu bat ere. Funtsean, plan zahar baten bertsio eguneratua da.

Herritarren haserrea eta planaren kontrako jarrera agerikoa izan dira. Horren

erakusgarri dira aurkeztu diren 2.000 alegazio baino gehiago eta 2023ko martxoan kalera aterata ziren 3.000 herritar baino gehiago. Herriak argi esan du plan honek ez duela bere beharrak eta etorkizuneko ikuspegia islatzen.

Horregatik aurkeztu dugu osoko zuzenketa. Getxok merezi du arduraz pentsatutako plan bat, herritarrak benetan erdigunean jarriko dituen eta etorkizunari begira ausarta eta bidezkoa izango dena. Getxo ez da hormigoia- ren proiektu bat: bizitzeko, partekatzeke eta hobetzeko herri bat da. Eta hori da guk defendatzen dugun eredua.



## GETXON ETXEBIZITZA PUBLIKOAK SORTZEKO HAPO BERRIA



## HAPOA GETXOREN AURKA

Asko hitz egin da Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorri (HAPO) buruz, baina ba al dakizu zertan datzan? Ba al dakizu Udaltzaren %72 alde dagoela? Gu alde gaude, honako arrazoi hauek direla-eta:

Planak 4.000 etxebizitza berri jazozen ditu biztanle gazteak mantentzeko eta berreskuratzeko, horietatik gutxi gorabehera 3.000 etxebizitza babestuak izango dira, alokairu publikoaren aldeko apustu argi

gisa. Era beran, balio erantsi handiko proiektuekin ekonomia dinamizatzen du, Getxo lo-hiria izan ez dadin, bizitzeko, gozatzeko eta lan egiteko hiri nahi baitugu. Planak Aizkorri ingurumen-aktibo natural gisa babestea jasotzen du; horregatik, debekatu da lurzorua- ren %80n eraikitzea, lehen bertan eraikitzea baimenduta bazegoen ere. Horrez gain, parke, azpiegitura eta zerbitzu berriak sortzen dira, biztanleek espazio gehiago

izan ditzaten. Hori guztia adostasun handiaren barruan lortu da, eta biztanleek aurkeztutako alegazio ugari txertatu ondoren. Beraz, hurrengo urteetan Getxoren hazkundera ordenatzeko tresna da, demokrazia-, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-erronka handiekin lerrotatuta. PSE-EEko kideon ustez, HAPOa ibilbide-orrria dela Getxo irisgarriagoa eta jasangarriagoa izan dadin eta aukera gehiago eskaini ditzan.

HAPOa akats historikoa izango da, aurrekoa bezala: udalerraren %6,5 urbanizatzea proposatzen du eta Andra Marin edo Salsidualden naturaguneak hartzea. Etxebizitzaren prezioa arautu gabe dago, 900 etxebizitza hutsik daude eta 200ek erabilera turistikoak daukate. Etxebizitza gehiago izango ditugu, baina zein prezio- tan? EAJ-PNV, PSE-EE eta PP beti eskutik hartuta hirigintzari probetxua ateratzeko.